

Garapen Lankidetzarako Funtsa



Urtero, toki entitateek bat egiten dute garapen lankidetzarako programa baterako bideratzen dituzten baliabideak elkarrekin kudeatzeko.

2018-2019

AURKIBIDEA

2018ko EKITALDIA	3
2018ko GARAPEN LANKIDETZARAKO FUNTSA	4
2018ko URTEKO DEIALDIAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK:.....	4
2018ko BALANTZE EKONOMIKOA.....	11
2019ko EKITALDIA	13
2019ko GARAPEN LANKIDETZARAKO FUNTSA	14
2019ko URTEKO DEIALDIAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK.....	14
HITZARMENA NAFARROAKO SAHARAR ORDEZKARITZAREKIN: DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUA.....	24
2019ko HITZARMENA GGKEen koordinakundea-NUKF	25
2019ko BALANTZE EKONOMIKOA.....	26
2016-2018ko HIRURTEKO PROIEKTUA	27
PROIEKTUAREN GAUZAPENARI BURUZKO AZKEN TXOSTENA.....	28
EGINDAKO JARDUEREN KRONOGRAMA	33



2018ko EKITALDIA

2018ko GARAPEN LANKIDETZARAKO FUNTSA

NUKFK hala eskatzen dioten entitateentzako kudeatzen duen Nafarroako Garapen Lankidetzarako Toki Funtsean entitate gehiagok parte hartu dute 2018an. Zehazki, **138 entitatek parte hartu** eta osotara **194.703,6 euroko ekarpena egin** dute.

Baliabideak lau helburutarako bideratu dira: Batetik, bost proiektu diruz lagundu dira urtero egiten den deialdiaren bidez. Bestetik, 2016-

2018ko hirurteko proiektua finantzatu da Barañain, Burlata eta Eguesibarko Udalekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin sinatutako hitzarmenari jarraiki. Hirugarrenik, GGKEen koordinakundearekin sinatutako hitzarmena ere finantzatu da. Eta azkenik, Nafarroako Saharar Ordezkaritzarekin sinatutako hitzarmenari jarraiki, proiektu bat finantzatu da.

2018ko URTEKO DEIALDIAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK:

2018an jasotako hogeita bederatzita proiektuetatik NUKFKo Batzorde Betearazleak **bost proiektu** finantzatzea onetsi zuen, osotara 120.000 euroko zenbatekoa bideratuz. Jarraian, finantzatutako proiektuak azaltzen dira:

GGKE: Medicus Mundi Nafarroa-Aragoi-Madril

PROIEKTUA: Osasun arloko laguntza Gakenke barrutian (Nembako ospitalearen eraginpeko eremua)

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Gakenke barrutia

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 30.909,99 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000 €

PROIEKTUAREN EGOERA: gauzatzeko bidean. Txosten partziala: 2019ko abuztuaren 30a. Amaierako txostena aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 31a arte luzatzeko baimena eman zaio.

Proiektuak jarraipena emanen dio Medicus Mundik azken urteotan Nembako ospitaleari eta horren 14 osasun zentrori emandako laguntzari, zeinek 250000 pertsonari ematen baitiete arreta, bertako lankidearekin (Gakenke barrutia) elkarlanean. Kasu honetan, NUKFri finantzatzea proposatu zaion ekintza proiektuaren luzapena da. Haren planifikazioa 2015-18 hirurtekorako aurreikusi zen, non Janjako osasun etxeko eraikin bat eraberritu gogo baitzen, txertaketa lanak hor egiteko.



LORTUTAKO EMAITZAK:

- **1. emaitza:** Nembako ospitaleko eta osasun zentroetako osasun zerbitzuak eskuragarriagoak dira.

Emaitza hau neurtzeko urteko adierazleak ezarri dira. Hortaz, amaierako txostenean lorpen maila neurtu ahalko da eta horren inguruko informazioa jakinaraziko da.

- **2. emaitza:** barruti mailan osasuneko jarduerak koordinatzeko mekanismoak indartu egin dira.

Urte bukaeran emaitza neurtu eta amaierako txostenean honen berri emanen da.

GGKE: España con ACNUR elkarte

PROIEKTUA: Edateko ura eta saneamendua ematea Txadko ekialdean errefuxiatu diren sudandarrentzat

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: UNHCR Txadko Errepublikan

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 347.756,80 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000 €

PROIEKTUAREN EGOERA: Bukatua eta justifikatua: Amaierako txostena 2019ko abuztuaren 19an aurkeztu zen.

Proiektu hau UNHCR Txaden garatzen ari den programa orokorrean txertatu behar da, zeinak helburu baitu nazioarteko babesa bermatzea Darfurretik joandako sudandar errefuxiatuei, bai urteak daramatzatenei, bai Sudango segurtasunik eza dela-eta berriki joandakoei.

Haren helburu nagusia da UNHCRk Txadko ekialdean kudeatzen dituen kanpamenduetako pertsonak eta tokioek eskuratu ahal izatea uraren hornidura zerbitzuak, etenik gabeko eta kalitatezko hornidura eskuratu ere, nazioarteko neurriekin bat egiten duena, eta ingurune osasungarrietan bizitzea, gaixotasunik kutsa ez dadin.



LORTUTAKO EMAITZAK:

- **1. emaitza:** edateko ura hartzeko sistemak ekoizteko eta banatzeko gaitasuna handitu eta horien kalitatea bermatu da.
 - **2. emaitza:** kanpamenduetako saneamendu-azpiegiturak handitu dira.
 - **3. emaitza:** komunitate onuradunak sentikortu egin dira eta ura kudeatzeko gaitasuna sendotu da.
-

GGKE: UNICEF – Nafarroako Batzordea

PROIEKTUA: Ur hornidura eta saneamendua hobetzea, eta hari lotutako jarduerak egitea Lehenengo Hezkuntzako ikastetxeetan eta landa komunitateetan Ginea Bissaun (II. fasea).

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: UNICEF-Ginea Bissau

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 130.140,00€ **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000 €

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean. Bigarren txosten partziala: 2020ko urtarrilaren 27a. Amaierako txostena aurkezteko epea luzatzeko bigarren baimena eman zaio; 2020ko azaroaren 30ean aurkeztu beharko du.

Ginea Bissauko landa eremuetan, herritarren %39k seguruak ez diren iturrietatik edaten dute ura, eta %43k, berriz, ez dute saneamendu instalaziorik. Landa eremuetako herritarren %33k obratzen dute aire zabalean oraindik eta horrek oso ondorio txarrak ditu osasun publikoaren gainean. Proposamenaren xedeko Oio moduko eskualdeetan, herrialdeko txiroenetako bat baita, adierazleak are okerragoak dira. Familia txiroetako haurrek bete gabe dute ura eta saneamendua izateko eskubidea. Horrek eragina du osasunerako duten eskubidean, diarrea aldiak



pairatzen baitituzte, baita hezkuntzarako duten eskubidean ere, ur eta komun garbirik ezak murrizten baitu haurren eskolaratze tasa, batez ere neskena. Azken urte hauetan, UNICEFek 240 ikastetxe hornitu ditu herrialdean ur eta saneamendu sistenez. Proiektu horrekin, beste 3 ikastetxe hornitu gogo dira, onuradunak 800 haur izan daitezten. Proiektuaren barnean, nazioko eta erregioko agintariek koordinatuta, eta haurrek berek, irakasleek eta komunitateek esku hartuta, honako hau eraikiko da ikastetxe bakoitzean:

1. Ur horniduraren sistemak.
2. Komunen multzoak, mutilen eta neskenzat bereziak.
3. Konketak eskuak une inportanteetan garbitzea sustatzeko eta, gisa horretan, gaixotasunen hedapena prebenitzeko.

Orobat, eskolen inguruko komunitateetan ere hartuko da esku, etxeetan komunak egitea akuilatze eta higiene jarduera egokiak sustatzeko, Komunitatea buru duen saneamendu osoaren metodologiaren bitartez, esku-hartzea integralagoa izan dadin. Proiektuak, halaber, osagai garrantzitsu bat dauka gaikuntzaren, partaidetzaren eta sentikortasunaren arloan instalazioen zaintza eta erabilera egokia bultzatzeko, baita jardunbide egokiak ere, dela ikastetxean, dela familietan.

LORTUTAKO EMAITZAK:

- **1. emaitza:** haur hezkuntzako hiru eskolek eta inguruko komunitateek ur seguru eta saneamendu-azpiegitura egokiak eskuragarri dituzte. Arreta berezia jarri da nesengan.
- **2. emaitza:** eskolan eta familian era jasangarrian higiene ohiturak finkatu dira osasuna hobetzeko (urarekin lotutako gaixotasunak prebenitzeko) eta haurren eskolatzea (bereziki, neskena) hobetzeko.

GGKE: Rode fundazioa

PROIEKTUA: Edateko uraren hornidura egitea eguzki energiaren bidez Boli Kostako hegomendebaldeko landa eremuak garatzeko (Nero-Boupé)

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Association Action pour le Developpement

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 48.339,00 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000 €

PROIEKTUAREN EGOERA: Bukatua eta justifikatua: Amaierako txostena 2019ko abenduaren 31n aurkeztu zen.

Proiektu honekin, Nero-Boupé landa eremuan edateko ura hartzeko putzua jarri da. Herrixka horrek bertako krou etniako 1.500 biztanle ditu. Horretaz gain, bertan bizi dira ere bai fanti etniako emigranteak (Ghanakoak), itsasoan arrantzatzen dutenak eta dioula etniakoak. Azken horiek herrialde mugakideetatik etorriak dira (Malitik eta Burkina Fasotik) eta kautxu zuhaitzetako eta olio-palmondoetako landaketetan langile aritzen dira.

Proiektua egin aurretik, Nero-Boupén oso zaila zen ura edukitzea. Herrixka hori eremu babesgabea eta txiroan dago eta bertako



lursail gehienak Gobernuak konfiskatu eta olio-palmondoa eta kautxu zuhaitza ekoizten duten atzerriko nekazal industriako enpresei lagatu dizkie. Enpresa horiek erabiltzen duten eskulanaren prezioa oso merkea da (hilean 50 € ingurukoa). Lurraren erabilpen tradizionala eta familiakoa (baratzeko laborantzak, ehiza etab.) desagertu egin da eta horrek areagotu egiten du biztanleen pobrezia egoera, ezin baitute autokontsumora jo.

Horrekin batera, uraren eskuragarritasuna txikia da eta osasunerako kaltegarria: edateko ura hartzeko putzu moderno bat baino ez zegoenez erabilgarri, bertako biztanleek eskuz egindako, sakonera txikiko eta berehala agortzen ziren putzuetatik edateko txarra den ura hartzen zuten edo herrixkaren ondoan dauden ur-lasterretatik.

Proiektuaren helburua da herritar guztientzako edateko ura lortzen lagunduko duen sistema batez hornitzea Nero-Boupé herria. Hori lortzeko, eguzki panelak baliatzen dituen sistema bat jarri nahi da eguzki energia ahalik eta gehien aprobetxatzeko, Nero-Boupén argindarrak ez dagoelako.

LORTUTAKO EMAITZAK:

- **1. emaitza:** Nero-Boupéko biztanle guztiek dute edateko ura hartzeko iturri seguru bat etxetik hurbil.
 - **2. emaitza:** Nero-Boupéko herrixkan ura modu egokian kudeatzen da.
 - **3. Emaitza:** Nero-Boupéko biztanleen higiene eta osasun baldintzak hobetu dira.
-

HITZARMENA NAFARROAKO SAHARAR ORDEZKARITZAREKIN: DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUA

GGKE: Saharar Errepublika Arabiarraren Nafarroako Lagunen Elkarte

PROIEKTUA: Esnea Saharako haurrentzat.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Saharako Ilargi-erdi Gorria

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 30.148,00 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000 €

PROIEKTUAREN EGOERA: Bukatua eta justifikatua: Amaierako txostena 2019ko abuztuaren 31n aurkeztu zen.

2001. urtetik elikagaien sektorean krisi sakona gertatzen ari da krisi kroniko batetik eratorria. Azken urteotan, egoera okerrera egin du egungo krisi ekonomikoarengatik eta horrek kanpamenduetan eragin negatiboa izan du, bereziki, sektore zaugarrienean, hots, 0 eta 2 urte bitarteko haurrengan. Haur horiek dira elikagaien krisi honek gehien kolpatu dituenak. Izan ere, amen anemiak areagotu baitira eta haurren pisu eta altuera txikia ugaitu, eta beraz, malnutrizioa handitu. Hortaz, proiektu honen bidez haur sahararren malnutrizioari aurre egin nahi zaio haurrentzako esnea banatuz onuradun gisa identifikatu direnei.



LORTUTAKO EMAITZAK:

- Argi dago, entitate honek modu jarraian hala behar duten haurrentzako esnea banatuz haur sahararren osasun egoerak hobera egin duela orokorrean. Osasun egoera hori saharar medikuek eta haur sahararren osasuneko plan integraleko erizaintzako langileek ebaluatu egiten dute. Oraingoan erositako esnea ez da oraindik banatu kanpamenduetara 2019ko otsailaren 26an iritsi zelako. Hala ere, lehenengo banaketa martxoan egin da.

2018ko HITZARMENA GGKEen koordinakundea-NUKF



Coordinadora de
ONGD Navarra

Nafarroako GGKEen
Koordinakundea

Aurreko ekitaldietan bezala, **2018ko uztailaren 17an** Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen artean garapen lankidetzaren arloko hitzarmena sinatu zen, Nafarroako udalerrietan sentikortze, trebatze eta aholkularitza jarduerak egiteko.

SENTIKORTZE JARDUERAK

Koordinakundeak 2018an egindako jardueri buruz aurkeztutako txostenean, ondorengoak jasotzen dira:

- Aholkularitza: 2018an 55 aholkularitza-lan egin dira. Horietatik 13k entitate sozialek egindako lankidetzak ekintzen inguruan informazioa eskatu zuten. Koordinakundea 6 udalekin harremanetan jarri da oinarriari, deialdiei, ebazpenei, inprimakiei eta abarrei buruzko informazioa eskatzeko.
- Errefuxiatuekin lotutako ekintzak:
 - Manifestazioa “Europa gotorlekuari ez, Giza Eskubideak ez daude salgai” lelopean.
 - Nafarroan errefuxiatuak hartzeko protokolo integralaren aurkezpena maiatzaren 17an eta jarraipen bilera urrian.
 - Migrazioei eta elkartasunari buruzko estatu mailako I. topaketa.
 - Estatuko gobernuak Aquarius ontzian bidaiatzen duten pertsonen inguruko jakinarazpenari buruzko iritzia ematea.
 - Ekainak 20, Errefuxiatuen nazioarteko eguna.
 - Hegoaldeko mugan migratzaileen giza eskubideen defendatzailea den Helena Meleroren aldeko defentsa.
 - EAEko mugimenduekin elkarlana.
 - Iruñeko Udalarekin batera, Elkarbizitzarako eta Aniztasunerako Zerbitzu bat sortzeko prozesuan parte hartzea.
 - 2019ko apirilaren 20tik 22ra Iruñean izanen den Migrazioei eta elkartasunari buruzko estatu mailako I. topaketaren antolakuntza.
- 2017ko Lankidetzak deszentralizatuari buruzko MAPA. Koordinakundearen GGKEi guztiei inkesta bat egitea. Mapa Nafarroako GGKEen Koordinakundearen web orrian jarri zen eta NUKFri zein Iruñeko Udalarari bidali zitzaien.
- Informazio Buletina. Hamabost egunez behingo buletinean, 2018an garapen lankidetzarako 27 deialdi eta zenbait udaletan eginiko 93 jarduera argitaratu dira.

- Dirulaguntzen deialdiei buruzko informazioa emateaz gain, toki entitateen ekintzen ingurukoa ere ematea.
- Ebazpenei buruzko informazioa. 2018an 21 ebazpen bildu dira.
- Lankidetzako Udal Kontseilua.
- “Agenda 2030 lurralde mailan; garapen jasangarrirako aukera” lantegia. Irailaren 21ean Madrilen egin zen.
- Argitalpenak:
 - Dirulaguntzen gida eta kronograma.
 - Elkartasun ibilbideak.
 - Gida: Toki entitateen eginkizuna errefuxiatuen harreran.

2018ko BALANTZE EKONOMIKOA

2018ko DIRU-SARRERAK		2018ko GASTUAK	
LANKIDETZARAKO TOKI FUNTSA			
Entitateen deialdiko ekarpenak (138 entitate)	194.703,96 €	2018ko Funtsaren deialdiko dirulaguntzak (5 proiektu)	120.000,00 €
		Toki Funtsak 2016-2018ko Hirurteko Proiektuari eginiko ekarpena	35.000,00 €
		Saharako proiektua	24.000,00 €
		2018ko hitzarmena NUKF-GGKEen koord.	8.000,00 €
Diru-sarrerak, guztira	194.703,96 €	Gastuak, guztira	187.000,00 €

Gastuak portzentajeetan



2017ko saldoa	1.704,04 €
Diru-sarrerak, guztira	194.703,96 €
Gastuak, guztira	187.000,00 €
AMAIERAKO SALDOA	9.408,00 €



2019ko EKITALDIA

2019ko GARAPEN LANKIDETZARAKO FUNTSA

NUKfK hala eskatzen dioten entitateentzako kudeatzen duen Nafarroako Garapen Lankidetzarako Toki Funtsean **132 entitatek** parte hartu dute 2019an, eta osotara **258.108,83 euroko ekarpena** egin dute.

Baliabide horiek hiru helburutara bideratu dira: Batetik, **hamaika proiektu** diruz lagundu dira urteko egiten den deialdiaren bidez.

Bestetik, GGKEen Koordinakundearekin izenpetutako hitzarmena finantzatu da. Eta azkenik, Nafarroako Saharar ordezkartzarekin izenpetutako hitzarmenari jarraiki proiektu bat finantzatu da.

2019ko URTEKO DEIALDIAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK

2019an jasotako hamasei proiektuetatik NUKfko Batzorde Betearazleak hamaika proiektu finantzatzea onetsi zuen, osotara **234.137,09 euroko** zenbatekoa bideratuz. Jarraian, finantzatutako proiektuak azaltzen dira:

GGKE: Manos Unidas

PROIEKTUA: Programa integrala, Kangrin herriko haurrei hezkuntzarako eskubidea itzultzeko (Burkina Fasoko iparraldeko eskualdea, Passoré probintzian).

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Asociación para la Paz y Solidaridad.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 246.236,84 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Guztira diren 48 komunitateetatik beste 10ek bezala, Kangrin landa komunitateak ez du hezkuntza azpiegiturarik eskolara joateko adinean dauden haurren irakaskuntza beharrei erantzuteko. Proiektuak helburu du ekintza pilotu bat egitea herri horretan: kalitatezko eskola-azpiegitura bat ematea haur guztiei hezkuntzarako eskubidea bermatzeko. Gainera, proposatutako ekintzek higieena sustatuko dute herrixkan eta komunitateak ikastetxearen kudeaketan esku hartzea lortu gogo da.



JARDUERAK:

- Ikastetxe bat eraikitzea, hiru gelatako bi bloke izanen dituen. Horretaz gain, irakasleentzako bulegoa eta 6 logela, biltegia eta sei komuneko bloke bat ere izanen ditu. Gela bakoitzean 60 ikasleentzako tokia egonen da. Ikastetxea ekipatzea. Ur-putzua eraikitzea.
- Eskolaren jarraipena egiteko komite bat sortzea, eskolako gurasoentzako bi klub sortzea higieine ohiturak lantzeko, Radio Abollé komunikabidearen bitartez komunitatea eskubideetan gaitzea eta emakumearen eskubideei buruzko lantegiak. Gurasoen elkarteak sortzea eta liderrei zuzenduriko elkarteak antolatzeari buruzko lantegiak eskaintzea.

GGKE: Medicus Mundi Nafarroa-Aragoi-Madril

PROIEKTUA: Herritarren osasuna hobetzeko dimentsio anitzeko programa Gakenke barrutiko hiru sektoretan: Nemba, Karambo eta Kumubugan.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Gakenke barrutia.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 30.230,16 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektu hau 2019-2021 aldirako dimentsio anitzeko programa berri baten plangintzaren barruan kokatzen da. Programa hori generoarekiko sentikorra da eta Gakenke barrutiko Nemba ospitalearen eragin-eremuko populazioaren osasun egoera hobetzea du helburu. Zehazki, Nemba, Karambo eta Kamubuga sektoreetako lehentasunezko 7 komunitateen biztanleen higiena, saneamendua eta ur-sistemak sendotzeko helburua du programak.



JARDUERAK:

- Higienari buruzko 4 klub osatzea beste hainbat komunitateetan. Materiala ematea 4 komunitetako 40 komunak hobetzeko. Ur-horniketarako sistema bat eraikitzea komunitate batean (gainontzekoa bestelako ekitaldiei dagokie). Laguntza eta trebakuntza komunitateko osasun-etxeen ondoan dauden ur-horniketarako 7 sistema kudeatzeko. Proiektu zabalago baten azpiproiektua da eta zenbait urtetan zehar osasun arloko jarduerak aurreikusten ditu ospitalean, osasun-zentroetan eta abar. Bestek beste, elikadura hobetzeko eta abar.



GGKE: UNICEF – Nafarroako Batzordea

PROIEKTUA: Haurren ikasteko eskubidea hobetzea ura eta saneamendua eskuragarri jarritz eta higiena sustatuz Burkina Fasoko ekialdeko eskualdeko 8 landa-eskoletan.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: unicef Burkina Faso.


PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 325.000,00 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektua Burkina Fasoko ekialdeko eskualdeko 10 landa-eskolatan gauzatzen da. Bertan, gaixotasunen transmisioa eta eskola-absentismoa ekiditeko honakoak eraikiko dira:

- Ur-sistemak eta eskuak garbitzekoak.
- Sexuen arabera bereizitako komunak.

Gaitzeko, parte hartzeko eta sentikortzeko ekintzek ikasleak, irakasleak eta familiak inplikatu dituzte instalazioen erabilera egokia eta higiene praktika egokiak sustatzeko. Hezkuntzako eta Ura eta Saneamenduko Ministerioekin elkarlanean lan egingen dugu, Ura eta Saneamenduko Eskualdeko Zuzendaritzaren bitartez.



JARDUERAK:

- 10 eskolatan ur-sistema (putzua edo euri-ura) eta eskolako komunak eraikitzea. Uretako eta saneamenduko kitak erostea. Higiena klubak sortzea eskoletan. Urari eta saneamenduari buruzko programa eskoletan. Komunitatea sentikortzeko jarduerak. Irakasle eta gurasoak trebatzea.
-

GGKE: Fundación Manuel María Vicuña

PROIEKTUA: Zaurgarritasun egoeran dauden neska eta emakume gazteentzako Egoitza hobetzea eta berritzea Burkina Fasoko Nasson.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Religiosas María Inmaculada (RMI) Burkina Faso. Institut des Religieuses de Marie Inmaculée.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 4.800,00 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 3.911,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektu honek Religiosas de María Inmaculada (aurrerantzean RMI) erakundeak Nassoko auzoan duen egoitzaren azpiegiturak hobetzea du helburu. Nasson, herrialdeko bigarren hiri populatuenetik, Bobo Dioulassotik, 15 kmra dago. Helburu hori lortzeko, hobekuntza obrak eginen dira, trebakuntza jasotzen duten bitartean bertan bizi diren neska gazteek baldintza duinetan bizi daitezen.

Ekintza garapen prozesu baten barruan kokatzen da eta neska zein emakume gazteen harrera, sustapena eta ahalduntzea du oinarritzat. Egun, prozesu hori emakumeentzako Lanbide Heziketako Zentro baten eta egoitza baten bidez gauzatzen da. Dimentsio anitzeko prozesu horrek oinarritzat zerbitzuak emateaz gain, emakume bakoitzaren egoerari eta kualifikazioari egokitzen zaion kalitatezko hezkuntza oso bat eskaintzen du. Horrekin

bilatzen dena da emakume horiek gizartean eta lan munduan txertatzeko eta emantzipatzeko dituzten aukerak handitzea eta egun duten zaurgarritasun ekonomiko eta soziala apaltzea.



JARDUERAK:

- Emakumeentzako Lanbide Heziketako Zentroko emakume gazteentzat (11-25) egoitza bat berritzea. Hormak, habeak, erretenak, iragazgaizpena, eltxo-sareak...
-

GGKE: Solidaridad, Educación, Desarrollo (SED)

PROIEKTUA: Ur-putzuak eraikiz Doubadana, Dihe, Kagberi II eta Ngabouna II komunitateetan urratutako eskubideak hobetzen laguntzea.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Groupement Djoikinane de Kabra, GDK.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 37.262,00 €. **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektu honetan, zaugarritasun egoera larrian dagoen populazioa topatzen dugu; erabat txirotutako ingurune bateko landa-herriak dira. Honako ekintza hau, populazioak edateko ura eskuratu ahal izatea bermatzeko jarraipen ekintza da eta ura landa eremuko 4 komunitateri bermatuko die: Dubadana, Dihe, Kagberi II eta Ngabouna II-ri. Komunitate horiek haur eta eskolatze adinean dagoen populazio kopuru handia dute. Aipatu 4 komunitate horiek aukeratu



ditugu gaixotasun gastrointestinal gehien dituztenak direlako baita horren ondorioz heriotza gehien dituztenak ere. Gure kontrako alderdia, el Groupement, 6 urte daramatza datu horiek biltzen ur-putzuak non jarri lehenesteko. Gure proiektuan, gaixotasunen prebentzioa landuko dugu biztanleei kalitatezko ura eskainiz eta gaitze-ikastaroen bidez osasuna sustatuz. Ikastaro horiek higiene ohiturak eta uraren bidez kutsatzen diren gaixotasunak izanzen dituzte hizpide eta komunitate guztietan eginen dira bai helduekin bai hurrekin eskolan ere.

JARDUERAK:

- 4 ur-putzu eraikitzea beste hainbat komunitateetan. Higieneari eta instalazioen mantentze-lanei buruzko lantegiak onuradunentzat. Ez dira behar bezala azaldu. Osasun eragileen hautaketa eta trebakuntza. Ez da behar bezala azaldu.

GGKE: UNHCR Nafarroa

PROIEKTUA: Edateko ura eta saneamendua ematea Txadko ekialdean errefuxiatu diren sudandarrentzat

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Nazio Batuen Goi Komisarioa Txad Errepublikako errefuxiatuentzat.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 229.757,22 €. **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektu honi esker, edateko ur-horniduraren sistema mantendu eta hobetu egingen da ur eta saneamenduko instalazioak berrituz eta eraikiz (horretarako eskatzen da Lankidetzarako Toki Funtsaren laguntza). Horretaz gain, aipatu azpiegituren mantentze-lanak egiteko trebakuntza eskainiko da eta higienari zein hondakinen bilketa egokiari buruzko sentikortze jarduerak egingen dira.

**JARDUERAK:**

- Hiru putzu berritzea eta mantentze lanak egitea. Hornidura sareen eta txorroten mantentze lanak egitea. Komunak eraiki eta horien mantentze lanak egitea. Uraren komiteak sortzea. Ur-manegiari buruzko trebakuntza.

GGKE: Rode fundazioa

PROIEKTUA: Eguzki-energia baliatuz edateko ura eskuragarri jartzea Taki landa eremuko herrixkan.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Association Action pour le Developpement.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 23.931,75 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 23.931,75€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Taki herrixkak (1.100 biztanle) ez du edateko urik ezta elektrizitaterik ere. 1996tik aurrera, putzu moderno bat dauka, baina ponpa hondatuta dago. Hortaz, azaleko urez hornitzen da komunitatea, eta, egoera txarrean egonda, infekzioak eta eritasunak pairatzeko arriskua dago. Proiektuarekin, hornidura jasagarria egiteko sistema bat jarriko da martxan (urontzia eta eguzki ponpa), eta kanalizazioa egingen puntu estrategikoetaraino. Prestakuntza emanen zaie herritarrei uraren erabilera egokiari buruz eta kudeaketa batzorde bat arduratuko da mantentze-lanez; horrela bermatuko da proiektuaren jasagarritasuna.

**JARDUERAK:**

- Eguzki-energiarekin dabilen ponpa jartzea

GGKE: Asociación Infancia sin Fronteras - ISF Navarra

PROIEKTUA: Haurrentzako janari eta elikadura segurtasuna Maradiko emakumeen kolektibo baten ahalduntzearen bidez. Niger.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Enfance sans Frontières Niger.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 37.302,60 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 21.322,73€.

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektuak Safo Chadawa herrixkako 50 emakumez osatutako kolektibo batekin lan egingen du. Kolektiboari lursail bat eskura jarriko dio baita lurra lantzeko bitartekoak ere (ura, lanabesak, haziak eta abar). Era berean, proiektuak elkartearen kudeaketari buruzko trebakuntza eta laguntza eskainiko du. Kudeaketa horren ahalduntzeak elikaduraren segurtasun faltari aurre egiteko erresilientzia indartuko du. Modu horretan, ekoizpen-eredu eta garapen sozioekonomikoaren eredu jasangarria eta inklusiboa sustatuko da, landa eremuko Nigerren dauden desparekotasunak gainditzen lagunduz.

**JARDUERAK:**

- Lantzeko aproposa den hektarea erdia erostea emakumeen elkarterako. Hesitura eta zaintzailearentzako lursailaren ondoan eginiko eraikuntza. Putzua zulatu eta eraztuntzea. Eguzki-energia baliatuz ura ateratzeko sistema bat jartzea eta gasolioko ponpa bat erostea beharrezkoa den kasuetarako. Biltegitratze eta ureztatze sistemak sortzea. Lanabesak eta nekazaritza sargaiak ematea. Hainbat gaien inguruko trebakuntza: lanabesak erabiltzeko, nekazaritza ekoizpenaren inguruan, elkartearen kudeaketarako eta nutrizioa zein jateko ohiturei buruz.

GGKE: COOPERA

PROIEKTUA: Oinarrizko hezkuntza inklusibo eta parekidea ahalbidetzea Saly Velingara auzoan.

TOKIKO KONTRAKO ALDERDIA: Asociación Coopera Senegal (COSEN).

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 57.207,52 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 23.543,30€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

COSEN toki elkarteak 2016an hasi zuen Arco Iris eskola eraikitzen haur hezkuntzako 3 gelek. Azkeneko ikasturteak, 97 ikaslerekin, kalitatezko hezkuntza jaso du, ingeleseko eta gaztelaniako klaseekin ere bai. Eskola horretan amaitu duten haurrek urrunagoko beste eskoletara joan behar dute lehen hezkuntza egitera. Beraz, lehen hezkuntzako 2 gela berrirekin zikloa osatuko lukete honela: Haur hezkuntzako zikloa (6 urte), Lehen hezkuntzako zikloa (7 urte), Ziklo 1 (8 urte). Oinarrizko hezkuntza bultzatzeko proiektua da. Genero ikuspegia du eta Senegalgo Gobernuaren politikekin bat dator (Senegal suspertzeko plana).



Horretaz gain, irakasleentzako trebakuntza egingo da, ikasleen amentzako alfabetizazio ikastaroak eskainiko dira baita inklusiori eta haurren eskubideei buruzko tailerrak ere. Azkenik, gurasoei haien seme-alabak hezteko laguntza eskainiko zaie.

JARDUERAK:

- Lehen Hezkuntzako bi gela eta komunak eraikitzea. Irakasleentzako birziklatze-ikastaroak. Parekotasunari eta inklusiori buruzko trebakuntza. Amentzako alfabetatze tailerrak. Gurasoen eskolarako trebakuntza.
-

GGKE: Asociación Nuevos Caminos

PROIEKTUA: Nekazaritza eta basozaintzako garapena eta ingurumenaren babesa Mordan udalerrian.

TOKI KONTRAKO ALDERDIA: San Pabloko komunitatea.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 51.309,76 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 22.698,31€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektuaren helburua da Barrera udal-barrutian nekazaritza garatzea ur-hornidura hobetzeko ur-gordailu bat eraikita eta La Humanitaria nekazarien elkarteko kideak diren eremuko nekazariei trebakuntza emanez ereite sistemei, uraren erabilerari eta laborantza berrien (mahatsa eta pitahaya) erabilerari buruz. Ur-biltegi ireki bat egingen da, 57x65x4 metrokoa, ura zanga batetik hartuz dagoeneko dauden laborantza tradizionalak (platanoa etab.) ureztatzeko eta beste ur-biltegi ireki bat egingo da, 15x12x2 metrokoa. Kasu horretan, ura iturburutik hartzeko adukzio lerroaren hartune-obra eta bigarren lerroarena egingo da eta, azkenik, tantaz tantako ureztatze sistema jarriko da.

**JARDUERAK:**

- Hainbat atal eraikitzea: hartunea, sedimentazio kutxa, ur-lerroa, gordailua, lursailetaraino doan bigarren ur-lerroa. Trebakuntza honako gaiak landuz: elkartegintza, uraren erabilera, mahatsa eta pitahaya nola hazi, kooperatibismoa eta merkaturatzea.

GGKE: Itaka Escolapios Fundazioa

PROIEKTUA: Saneamendu egokirako eskubidea ahalbidetzen Kikonkan.

TOKI KONTRAKO ALDERDIA: Itaka Escolapios Fundazioa-Kongoko Errepublika Demokratikoa.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 23.428,13 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 18.730,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

Proiektu honekin bilatzen dena da, Kikonkan saneamendurako eskubidea ahalbidetzea sexuen araberako sarbide bereizita duten komun publikoak eraikita Saint Pierre parrokiako zentro komunitarioan (emakumeentzako 3 komun, garbitzeko eremu bat eta eskuak garbitzeko 2 eremu eta gizonentzako 3 komun eta eskuak garbitzeko 2 eremu). Komun horien onuradun zuzenak guztira 245 pertsona izanen dira (192 emakume eta 53 gizon) eta orokorrak Kikonkako populazioa. 8 bolondresko talde bat sortuko da eta trebakuntza emanen zaio, generoaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik saneamenduaren kudeaketa egokia eta zainketa bermatzeko.



JARDUERAK:

- Eskolapioak kudeatutako parrokiako zentro komunitarioan komun publikoak eraikitzea. Emakumeentzako 3 komun, garbitzeko eremu bat eta eskuak garbitzeko 2 eremu eta gizonentzako beste hainbeste.
-

HITZARMENA NAFARROAKO SAHARAR ORDEZKARITZAREKIN: DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUA

GGKE: Asociación navarra de amigos y amigas de la RASD (ANARASD)-RASD Adiskidantzarako Nafar elkarte

PROIEKTUA: Esnea Saharako haurrentzat.

TOKI KONTRAKO ALDERDIA: Saharako Ilargi-erdi Gorria.

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 44.148,00 € **EMANDAKO DIRULAGUNTZA:** 24.000,00€

PROIEKTUAREN EGOERA: Gauzatzeko bidean.

2001. urtetik elikagaien sektorean krisi sakona gertatzen ari da krisi kroniko batetik eratorria. Azken urteotan, egoera okerrera egin du egungo krisi ekonomikoarengatik eta horrek kanpamenduetan eragin negatiboa izan du, bereziki, sektore zaurgarrienean, hots, 0 eta 2 urte bitarteko haurrengan. Haur horiek dira elikagaien krisi honek gehien kolpatu dituenak amen anemiak ugalduz eta hurren pisu eta altuera txikia ugarituz, eta beraz, malnutrizioa handituz. Hori horrela, hurren malnutrizioa ekiditeko haurrentzako esnea banatzen da onuradun gisa identifikatutako populazioaren artean.



JARDUERAK:

- Proiektua zuzena da NUKFk eta Saharar Ordezkaritzak izenpetutako hitzarmenaren arabera. Beraz, finantzazioa bidezkoa da. Hala ere, komeni da proposatzea GGKEak antzeko proiektuak aurkeztea hitzarmena sinatu baino lehen.

2019ko HITZARMENA GGKEen koordinakundea-NUKF



Coordinadora de
ONGD Navarra

Nafarroako GGKEen
Koordinakundea

Aurreko ekitaldian bezala, **2019ko ekainaren 19an** Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen artean garapen lankidetzaren arloko hitzarmena sinatu zen, Nafarroako udalerrietan sentikortze, trebatze eta aholkularitza jarduerak egiteko.

2019ko LEHEN SEHILABETEKOAREN SENTIKORTZE JARDUERAK

Koordinakundeak lehenengo seihilekoan egindako jardueri buruz aurkeztutako txostenean, ondorengoak jasotzen dira:

- NUKFren Lankidetzarako Funtzaren inguruko hausnarketa.
- Errefuxiatuekin eta migratzaileekin egindako jardueri buruzko informazioa. Harrera-hirien ekimena (ICA) eta beste batzuk.
- Informazio buletina / Elkartasun Agenda. Hamabost egunez behingo 24 buletin egin dira, 400 eduki baino gehiagorekin eta 1152 bazkideri bidali zaizkie (udalei, GGKEi, gizarte mugimenduei, alderdi politikoei, sindikatuei, Nafarroako Gobernuari... eta norbanakoei).
- Toki Entitateentzako aholkularitza. Honako udalei eskaini zaie aholkularitza: Etxarri-Aranatz, Atrarrabia, Burlata, Azkoien, Berriozar, Lizarra eta Antsoain.
- Toki Entitateen deialdien bilketa eta web orrialdean argitalpena. Deialdi horiek NUKFra bidali dira koordinakundearen web orrialdean argitaratzeko. Argitaratuak daudenean, mezua bidaltzen zaie GGKE guztiei.
- Dirulaguntzen Gidaliburuaren eta Dirulaguntzen Egutegiaren argitalpena.
- Elkartasun ibilbideak.
- “Toki entitateen eginkizuna errefuxiatuen harreran” gidaliburua eguneratzea. Aurten, gidaliburu osoaren eguneratzea proposatzen da, lehenengo argitalpena egin zenetik testuingurua eta araudia aldatu direlako.

2019ko BALANTZE EKONOMIKOA

2019ko DIRU-SARRERAK		2019ko GASTUAK	
LANKIDETZARAKO TOKI FUNTSA			
Entitateen deialdiko ekarpenak (132 entitate)	258.108,83 €	2019ko Funtsaren deialdiko dirulaguntzak (11 proiektu)	234.137,09 €
		Saharako proiektua	24.000,00 €
		2019ko hitzarmena NUKF-GGKEen koord.	8.000,00 €
Diru-sarrerak, guztira	258.108,83 €	Gastuak, guztira	266.137,09 €

Gastuak portzentajeetan



2018ko saldoa	9.408,00 €
Diru-sarrerak, guztira	258.108,83 €
Gastuak, guztira	266.137,09 €
AMAIERAKO SALDOA	1.379,74 €



2016-2018ko
Hirurteko proiektua

PROIEKTUAREN GAUZAPENARI BURUZKO AZKEN TXOSTENA



Proiektuak era integralean erantzuten dio Ipar Turkanan, Kokuselei eskualdean izandako lehorte luzeen ondorioz sortu den goseteari (Ngameriek, Alagama eta Ekurruchanait). Herritar ahulenak lehenesten dira: emakumeak eta 6 urtetik beherako umeak. Helburua da herritar osasuntsuak abiapuntu hartuta, oinarrizko baliabide eta azpiegiturekin, denentzat oraina eta geroa duinagoa lortzea. Lau esparru ditu jomuga: ura (3 eguzki-ponpa), osasuna (arreta-prebentzioa), nekazaritza (3 baratze komunitario) eta haurren elikadura (235 adinez txikikoen desnutrizioari arreta ematea eta aurrea hartzea).

Proiektuaren hirugarren urtean zehar, Ekurruchanait komunitatean lan egin da, bereziki. Bertako haurrak eta haien familiak izan dira zuzeneko onuradunak. Orain, ondorengoak dituzte: eguzki energia baliatzen duten ur-hornidurarako instalazioak, aska, biltegia duen sukaldea, komuna. Horretaz gain, baratze bat martxan jarri da eta, horri esker, lehen ezagutzen ez zituzten elikagaiak ekoizten ari dira.

Jarduerak egitean ez zen ustekabe adierazgarririk egon. Azpiegiturak eraikitzean zailtasunen bat egon zen lurra harritsu zelako baina zailtasunak gainditu eta espero ziren emaitzak lortu ziren.

Horrenbestez, hirugarren urte honekin programa amaitutzat eman daiteke. Desnutrizioa ohikoa izaten den eremu honetan proiektuari amaiera ematen zaio egunero ama-haurrentzako zentroetara joandako 235 haurren artean desnutrizio kasurik egon gabe. Gainera, proiektua amaitu ondoren, hiru baratze komunitario ditugu martxan haurrei behar dituzten elikagaiak ematen dizkieten frutak eta barazkiak ekoizteko. Horretaz gain, baratze horiek eremuko zenbait familientzako diru-sarrerak lortzeko bidea ere badira. Proiektuari esker, batetik, zenbait familiek landu ditugun gaien inguruko interesa dute haurren zainketari eta lan komunitarioari dagokionez. Bestetik, haurren higiena eta elikadura hobea ahalbidetzen duten azpiegiturak ditugu (sukaldea, biltegiak, itzaleko gelak eta komunak) baita ur-hornidura sistemak aipatu azpiegiturretarako eta tokiko elikagaien ekoizpena ahalbidetzen duten beste haurrentzako ere: askak, tantaz tantako ureztatzea.

EMAITZAK ETA JARDUERAK

1. emaitza. AZPIEGITURAK

Ekurruchanait komunitatean: Eguzki-ponpa eta txorrotak jarri, ura ubideratu eta aska bat eraiki da. Azpiegiturak ongi erabiltzeko, komunitateari trebakuntza eman zaio.



Hirurteko proiektu hau amaituta, Ngameriek, Alagama eta Ekurruchanait komunitateetako biztanleek biziki hobetu dute haien bizitza. Eguzki-ponpek, azpiegiturekin eta ur-deposituarekin batera, ur emari handiagoa ahalbidetu dute eta hiru komunitate horietako biztanleen biziraupena erraztu dute, baita Turkanako beste tokietatik ur eta bazka bila datozen hainbat artzainen biziraupena erraztu ere.

Gizakiaren kontsumorako higienikoak diren iturriek, berriz, emakumeen bizi-kalitatea hobetu dute. Izan ere, tradizioz emakumea izan baita ur bila joaten zena eta ia egun osoa ematen zuen lan horretan. Orain, proiektu honi esker, ehundaka pertsonen bizitza erraztu da: haien egunerokoan helburu nagusia ez da ura lortzea izanen. Proiektuaren arduradunok ikusi dugunez, haurren higiean aldaketa esanguratsuak egon dira Ngameriek,

Alagama eta Ekurruchanait komunitateetan. Proiektua hasi baino lehen, hiru komunitateetako haurrek etengabe zituzten azaleko eritasunak eta haurren zentroetako ama boluntarioentzako haurren eguneroko higiea lan nekeza eta zaila zen. Baina dutxak dauden tokiraino hoditeria jartzeak asko hobetu du haurrentzako zentroetako eguneroko higiea eta, beraz, haurren osasuna.

Eraikitako hiru instalazioei esker, egindako sukaldeek sukaldeko tresnak garbitzeko ontzi garbigailua dute eta abar. Horiek oso beharrezkoak dira ama-haurrentzako zentroaren eguneroko jardunerako. Instalazio horrekin batera, haurren neurrikoak diren eskuak garbitzeko konketak jarri ziren, denek jan aurretik higie egokia izan dezaten eta hala behar dutenean edateko ura eskura izan dezaten.



2. emaitza. NEZARITZA

Ekurruchanait komunitatean: Hesia eta tantaz tantako ureztatzea jarri da.



Hirurteko proiektu hau amaiturik, haurrentzako hiru zentroek hesia dute azpiegitura berriak zaintzeko eta nekazaritza ahalbidetzeko. Hesarik gabe eta tantaz tantako ureztatze sistemarik gabe ezin izango litzateke Kenia iparraldeko basamortu eremu honetan nekazaritzan aritu. Hesia izan zen gurasoek gehien eskertu zutena, instalazio guztiak modu iraunkorrean zaintzea ahalbidetzen duelako. Hiru nekazariak ponpa eta hesia laguntza paregabatzat jo zituzten landareak animalietatik (ahuntzak, gameluak eta untxiak) nola babestu kezkatuak zeudelako.

Ureztatzeko zenbait mahuka gehiago erosi dira hesitutako eremua aprobetxatuz zenbait fruta-arbola ereiteko, besteak beste, guaiabak eta papaiak. Hiru komunitate onuradunek hiru nekazari zaindutako baratzea dute. Nekazari horiek Israelgo Araba Institute-eko **Furrows in the Desert** programari eta Nafarroako Garapen Lankidetzarako Toki Funtzari esker, trebakuntza jaso dute. Elikagaien ekoizpena eskala handikoa ez bada ere, aipatzekoa da

baratzeak izugarrizko berrikuntza direla komunitate horietan eta, pixkanaka, gosearen aurkako konponbide zehatzen hasiera direla. Gainera, baratzeek biztanleen garapenean aldaketa garrantzitsuak dakartzate: batetik, haien lurrari buruzko iritzia aldatu dute. Lehen, antzua eta aukerarik gabekoa zela uste zuten, orain aldiz, haiek ereindako elikagaiak hazten ikusten dituzte. Bestetik, animalien odola eta esnea oinarritzat zuten dieta tradizionala aldatu dute barazki eta fruten bitaminak eta elikagaiak gehituta eta haur zein helduen osasuna hobetuz. Azkenik, nekazarien familien ekonomian aldaketa ekarri dute baratzeek ekoizten dutena salduta diru-sarrerara gutxi batzuk dituztelako.

Garrantzitsua da azpimarratzea, nekazari bakoitzak bere komunitateko beste bi pertsoneri erakusten ari diela. Pertsona horiek ikasteko gogoia dute eta haien tantaz tantako sistema propioa eduki nahi dute ekoiztu ahal izateko.



3. emaitza. ELIKADURA

Haur guztiek **elikadura** egokia dute Ngameriek, Alagama eta Ekurruchanait komunitateetan.



Proiektuaren hirugarren urtea hastean, Alagama, Ekurruchanait eta Ngameriek komunitateetara doazen haurrentzako elikagaiak erosi ziren. Aurreko bi urteetan bezala, erosketa Kitalen egin eta Lodwarreraino garraiatu zen. Handik, Kokuseleiko misiora eraman eta bertan modu egokian biltegian gorde zen.

Erositako elikagaien zakuak hilabetero banatu zitzaizkien komunitate onuradunetako ama-haurrentzako zentroetako komiteei. Hirugarren urtean zehar, Ngameriek, Alagama eta Ekurruchanait komunitateetako 6 urtetik beherako **235 haur** joan ziren ama-haurrentzako hiru zentroetara. Komite bakoitzeko emakumeak arduratu ziren hilabetero jasotako elikagaiak biltegian gordetzeaz. Sukaldeko tresnak erosi ziren eta emakumeak arduratu ziren sukaldatzeaz. Halaber, haur bakoitzak egunero gosari bat eta bazkari bat jasotzen zuela bermatzeko ardura hartu zuten. Adierazi denez, emakume horien lana boluntarioa da eta Elikadura Programari ematen zaion bertako laguntzarik garrantzitsuenak da. Proiektuaren barruan

dauden hiru zentroak haurrentzako zentroetako sare batean daude baina lan boluntario hori gabe programa ez litzateke bideragarria ezta jasangarria izango ere sarearen bidez.

Proiektuaren hirugarren urtean zehar ere bai, Ekurruchanaiteko haurrentzako zentroan sukaldea eta biltegia eraiki ziren. Obra egitean zailtasunak egon ziren lurra oso harritsua zelako; oinarriak eraikitzea benetan zaila izan zen. Hala ere, eraikitzaile arduradunak eta bere ekipoak zailtasunak gainditu zituzten. Obra ez zen aurreikusi bezala abuztuan amaitu eraikitzailearen osasun arazoak direla eta. Baina lanak urrian amaitu ahal izan ziren, jarduerekin hasteko aurreikusitako epean alegia.

Ngameriek, Alagama eta Ekurruchanait komunitateetako haurrentzako elikagaiak prestatzeko ardura duten ama boluntarioek trebakuntza jaso zuten su ekologikoak, biltegiak eta sukaldeak egoki erabiltzeko. Trebakuntza hori suak jarri zituen instalatzaileak, haurren jarraipena egiten duen eragile komunitarioak eta proiektuaren koordinatzaileak eman zuten.



4. emaitza. OSASUNA

Osasun arreta hilabetero. Desnutrizioa, malaria eta tuberkulosia prebenitu da 3 komunitateetan. 3 itzaleko gela, 3 dutxa eta 3 komun eraiki dira. Haurren higieneari eta zainketei buruzko trebakuntza eman da.



Proiektuaren hirugarren urtean, Ekurruchanait, Alagama eta Ngameriek komunitateen ama eta hurrei hilabetero osasun arreta eskaini zitzaizen erizainari eta erizain laguntzaileari esker. Bi langile horiek Kokuseleiko kontsultategian aritzen dira lanean **Nariokotomeko Osasun Integralerako Programan**. Haurren elikaduraren eta eritasunen jarraipena gauzatu ahal izan zen horretan gaitua dagoen pertsonarekin. Hirurteko proiektu honen barruan dauden hurrek egunero gosari bat eta bazkari bat jateko aukera izan dute. Horrek haurren heriotzak ekiditeaz gain, goseak eragindako desnutrizio larria ere ekidin du. Azken urte honetan, Ekurruchanait komunitatean gurasoentzako trebakuntza hitzaldiak egin dira (Alagama eta Ngameriek komunitateetan 2. urtean egin ziren). Gurasoek garrantzitsutzat jo zuten ekintza ildoak trebakuntza jarduerekin osatzea.

Lehenengo eta bigarren urtean, itzaleko gela bat eta dutxa bat eraiki ziren hiru komunitateetan elikadura eta osasun arreta

jasotzen duten haurrentzako gune higieniko bat bermatzeko. Hirugarren urtean, berriz, gelan baldosak jarri dira zoruak haurren eguneroko jarduerak hobe eutsi ditzan.



Komuna Ngameriek komunitatean lehenengo urtean eraiki zen eta Alagama eta Ekurruchanait komunitateetan, aldiz, bigarren urtean. Hiru komunek martxan jarraitzen dute eta koordinatzaileak eta eragile komunitarioak ikuskatzen dituzte. Eragile komunitarioak, gainera, jarraitzen du hurrei komunaren erabilera egokia azaltzen.



EGINDAKO JARDUEREN KRONOGRAMA

	2016ko azaroa – 2017ko urria			2017ko azaroa – 2018ko urria			2018ko azaroa – 2019ko urria		
	Ngameriek	Alagama	Ekurruchanait	Ngameriek	Alagama	Ekurruchanait	Ngameriek	Alagama	Ekurruchanait
A.1.-Eguzki-ponpa jartzea komunitate bakoitzean.	Egina				Egina	Egina			
A.2.- Ur-iturria eta aska eraikitzea komunitate bakoitzean.	Egina				Egina				Egina
A.3.- Hoditeria jartzea dutxa, sukalde eta baratzeetarako.	Egina				Egina				Egina
A.4.- Guraso eta haurrentzako hiru lantegi uraren erabilerari buruz.	Egina						Egina	Egina	Egina
A.5.- Hesia eta tantaz tantako ureztatzea.				Egina				Egina	Egina
A.6.- 3 multiplikatzailentzako trebakuntza elikagaien ekoizpenari buruz.	Egina				Egina				Egina
A.7.- Baratze komunitarioetan elikagaiak ekoiztea.	Egina				Egina				Egina
A.8.- Elikagaiak erostea, nahastea, ehotzea eta haurrentzako unitateetan banatzea.	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina
A.9.- 210 haurrentzako janaria egunero prestatzea.	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina
A.10.- Su ekologikoa duen sukalde 1 eta biltegi 1 eraikitzea Ngameriek komunitatean.				Egina					
A.11.- Su ekologikoa duen sukalde 1 eta biltegi 1 eraikitzea Alagama komunitatean.					Egina				
A.12.- Su ekologikoa duen sukalde 1 eta biltegi 1 eraikitzea Ekurruchanait komunitatean.									Egina (pintatzea falta da)
A.13.- Amen komitea trebatzea su ekologikoaren, biltegien eta sukaldeen maneiuari buruz.							Egina	Egina	Egina
A.14.- Klinika mugikorrarekin hilabetean behin osasun arreta ematea hiru komunitate onuradunen ama eta haurrei.	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina
A.15.- Haurren desnutrizioaren, malariaren eta tuberkulosiaren jarraipena egitea.	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina	Egina
A. 16.- Guraso eta haurrekin trebakuntza jardunaldiak egitea higieneari eta haurren zainketari buruz.	Egina				Egina				Egina
A.17.- Itzaleko gela bat eta dutxa eraikitzea Ngamerieken.	Egina								
A.18.- Itzaleko gela bat eta dutxa eraikitzea Alagaman.					Egina				
A.19.- Itzaleko gela bat eta dutxa eraikitzea Ekurruchanaiten.						Egina			
A.20.- Komunak eraikitzea komunitate bakoitzean.	Egina				Egina	Egina			

